

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21an hartutako erabakiaren laburpena: Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastuari aurre egiteko laguntza ekonomikoak emateko deialdi publikoa, 2019ko lehen sei hilekorako**

BDNS(Identif.): 463652

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>):

#### **Lehen. Onuradunak**

Eskabidea egiteko unean betebeharrak hauek betetzen dituzten pertsonak:

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea pentsio-osagarri gisa.
2. Eskabidea aurkezten den uneari dagokionez, azken 10 urteetan gutxienez 5 urtez Gasteizen erroldatuta egon izana, eta gutxienez urtebetez, modu jarraikian, eskabidea egin aurretik.
3. Ohiko etxebizitzarako elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen fakturak ordaintzea, zuzenean edo zeharka (etxejabeen erkidegoari, errentatzaileari...). Laugarren oinarriko 2. atalean zehazten da nola egiaztatu betebeharrak hori.
4. Kontsumitzaile kalteberentzako bonu soziala eskatu izana; urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuak eta urriaren 6ko ETU/943/2017 Aginduak arautzen dute hori.
5. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez egotea.

Betebeharrak egiaztatzeari dagozkionetarako, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan definitutako bizikidetzaren unitatearen kontzeptua hartuko da kontuan.

#### **Bigarrena. Helburua**

Baliabide ekonomiko eskaseko pentsiodunek ohiko etxebizitzan duten energia-gastua finantzatzeko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzea, hau da, bigarren oinarrian zehazten diren pertsonen elektrizitatearen, gasaren edo beste erregai batzuen hornikuntzagatik egin beharreko gastuari dagokiona.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

30.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Bi hilabete, laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 21a

*Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren administrazio zerbitzuen burua*  
**ROSA ANA URTARAN URTARAN**